

## Euskadiko AEko Merkatuko zerbitzuen sektoreko salmentek urte arteko % 26,8ko igoera izan dute 2021eko bigarren hiruhilekoan


**2021eko lehen seiuhilekoan, % 7,3ko hazkuntza izan dute**

Euskadiko AEko Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektorean salmentek % 26,8 egin dute gora 2021eko bigarren hiruhilekoan, 2020ko hiruhileko beraren aldean, prezio finkoetan eta egutegiko ondorioak alde batera utzi ondoren, Eustaten datuen arabera. Sektore horretan, *Ostalaritza*, *Garraioa eta biltegiatzea*, *Informazioa eta komunikazioak* eta *Enpresentzako zerbitzu-jarduerak* sektoreek eskainitako zerbitzuak sartzen dira. Aurten, orain arte, salmenten igoera metatua % 7,3koa izan da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio finkoetan eta urtaroko ondorioak alde batera utzi ondoren, salmentek % 1,5 egin dute gora, 2021eko bigarren hiruhilekoan.

### Zerbitzuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Zerbitzuen sektorean, urte arteko salmenta errealeen igoera (prezio finkoetan) orokortua izan da. Hazkuntza horretan buru dira *Ostalaritza* sektorea (% 81,1eko hazkuntza izan du) eta *Garraioa eta biltegiatzea* sektorea (% 34,3ko hazkuntza). Gainerako sektoreek ere hazkuntza esanguratsuak izan dituzte: *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak* sektorearen kasuan, hazkuntza % 17,7koa izan da; *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak* sektorearen kasuan, % 11,5ekoa, eta, azkenik, *Informazioa eta komunikazioak* sektorearen kasuan, % 6,2koa.

2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, era berean egiaztatzen da salmentek gora egin dutela sektore guztietan. Hala, *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak* sektorean % 3,9 handitu dira salmentak; *Garraioa eta biltegiatzea* sektorean, % 3,2; *Ostalaritza*, % 2,4; *Informazioa eta komunikazioak* sektorean, % 2,2, eta, azkenik, *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak* sektorean, % 1,2.

**Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Bestelako merkatuko-zerbitzuak.**  
**Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. II/2021**

|                                                    | t / t-4     | t / t-1    | A (t) / A (t-4) |
|----------------------------------------------------|-------------|------------|-----------------|
| <b>INDIZE OROKORRA</b>                             | <b>26,8</b> | <b>1,5</b> | <b>7,3</b>      |
| Garraioa eta biltegiatzea                          | 34,3        | 3,2        | 15,2            |
| Ostalaritza                                        | 81,1        | 2,4        | 6,9             |
| Informazioa eta komunikazioak                      | 6,2         | 2,2        | 2,1             |
| Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak | 11,5        | 3,9        | 3,8             |
| Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak  | 17,7        | 1,2        | -0,4            |
| <b>LURRALDE HISTORIKOAK</b>                        |             |            |                 |
| Araba                                              | 35,2        | -1,5       | 11,7            |
| Bizkaia                                            | 22,8        | 1,5        | 5,5             |
| Gipuzkoa                                           | 31,8        | 2,7        | 9,0             |
| <b>ENPLEGUA</b>                                    | <b>1,3</b>  | <b>0,9</b> | <b>-1,1</b>     |

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

**Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea**

Lurralde historikoen arabera, urte arteko igoera orokortua izan da. Araban, salmenta-indizea 2020ko bigarren hiruhilekoan izandakoa baino % 35,2 handiagoa izan da; Gipuzkoan, % 31,8 handiagoa eta, Bizkaian, urte arteko hazkuntza % 22,8koa izan da.

2021eko bigarren hiruhileko honetara arteko aldakuntza metatua dela eta, Araba da hazkuntzaren buru, % 11,7ko hazkuntza metatua izan baitu. Gipuzkoan, 2021eko bi hiruhilekoetan metatutako urte arteko aldakuntza % 9,0koa izan da, eta, Bizkaian, % 5,5koa.

2021eko lehen hiruhilekoaren aldean, salmentek Gipuzkoan % 2,7 egin dute gora eta Bizkaian, % 1,5. Araban, berriz, hiruhilekoen arteko % 1,5eko beherakada egon da.

Euskadiko AEko *Merkatuko zerbitzuetan* lanean ari den pertsonalaren indizea % 1,3 handitu da urte arteko aldian. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkuntza % 0,9koa izan da.

## INFORMAZIO-OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste batzuetan kontuan hartutako enplegatuen artean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientepean dauden pertsonak daude, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) enplegatuen inguruan [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jaso duen definizioari jarraikiz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaien gainean izandako eragina barne hartzen

dute, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) [\*Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis\*](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, bigarren hiru hilekoko indizea % **95,86ko babesarekin** kalkulatu da.

---

**Argibide gehiagorako:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prensa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62